



GAIA: ORIOKO UDALA. TURISMO BULEGOKO HARRERAGILE BAT LANBIDEN ARGITARATUTAKO LAN-ESKAINTZAREN BITARTEZ KONTRATATZEKO PROZESUA. LAN-ESKAINTZA LANBIDEN ARGITARATUKO DA.

LAN-ESKAINTZAREN DOKUMENTUAN JASOTZEN DEN INFORMAZIOARI ONDORENGO INFORMAZIOA GEHITZEN ZAIO: LAN-ESKAINTZAREN ERANSKINA: 1- LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- **IZENA: TURISMO BULEGOKO HARRERAGILEA**

- **LANALDIA. %63**

- **KONTRATUAREN IRAUPENA:** Lau hilabete. Ekainaren 1etik irailaren 25era arte.

- **ORDUTEGIA:** Goiz eta arratsaldeko txanda.

- **ORDAINSARIA:** Hileko 1225,93€ gordinak.

2- LANPOSTUAREN ARDURA NAGUSIAK: LANPOSTUAREN OINARRIZKO FUNTZIOA:

- Arreta eta informazio turistikoa eskaini.
- Jasotako dei eta e-mailei erantzun.
- Euskarri turistikoak eguneratuta edukitzea.
- Oriko baliabide turistikoen informazioak eta datuak eguneratuta edukitzea.
- Sare sozialen gestioa eta web gune propioa eguneratuta izan.
- Datu estatistikoak jaso.

ZEREGIN ESPEZIFIKOAK

- Turismo bulegora etortzen den jendeari atenditu aurrez aurre, telefonoz edo telematika bidez, eta arloko gaien izapide administratiboa egin, turismo bulegoko arduradunaren zuzendaritza eta agindupean.
- Informazio turistikoari dagozkion lan jakinak egin Itourbaskeko arauen barruan (estatistikak, informazio turistikoa, produktuen katalogoa, "famtrips"-ak, etab.), bulegoko erabiltzaileak/bezeroak gazteleraz, euskaraz, frantsesez eta ingelesez atendituz, aurrez aurre, telefonoz, faxez, postaz edo posta elektronikoaren bidez.
- Arlo honek antolatzen dituen ekitaldiak prestatzen lagundu, ekitaldietara joan eta behar bezala funtziona dezaten kontrolatu, hala egitea komenigarria denean.
- Turismo Bulegoko eta eskualdeko web-orriko datuak, foiletoak eta datubaseak gainbegiratu, eta horien eguneratze eta mantentze-lanak egin. Web orriaren eta sare sozialen dinamizazioa egin.
- Biltegia eta merchandising-a: eskaerak kudeatu, eskaerak jaso, stock-a kontrolatu, stock-a antolatu, etab.



ORIOKUDALA

- Halaber, lanpostuan aritzeko eskatutako prestakuntzarekin bat etorri agindutako beste edozein lan egitea.

3- HAUTAGAIEK BETE BEHAR DITUZTEN EZINBESTEKO BALDINTZAK:

- Euskarako 3. hizkuntza eskakizunaren edo horren baliokide baten jabe izatea.
- Frantseseko eta ingelesko ezagutza altua.

4- BALORATUKO DIREN MERITUAK:

Lan-esperientzia: (gehienez 10 puntu)

Turismo-bulego batean, ostaturen baten harreran edo antzeko lanposturen batean bai arlo publikoan eta bai pribatuan emandako zerbitzuak baloratuko dira: 0,40 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak) eta gehienez ere 10 puntu arte. Lanaldi osoa ez den kasuan puntuazioa hainbanatu egingo da.

Prestakuntza-ikastaroak: (gehienez 10 puntu)

Turismoko diplomatura edo gradua: 2 puntu. Goi mailako zikloa: Turismomerkaturatzea eta informazioa: puntu 1.

Graduondoa edo masterra turismo edota aisialdi arloan: puntu 1.

Hizkuntzak. Alemana, nederlandera edo katalaneko ezagutzak (B1) egiaztatzea: puntu 1. kastaroak eta jardunaldiak (gehienez,6 puntu).

Funtzioekin zerikusia duten besteak:

Oharrak:

1/ Lanbiden lan-eskaintza argitaratzen den egunaren aurreko egunera arte izango dira kontuan hartuko diren merituen.

2/ Hautagaiek, kontuan hartzea nahi dituzten merituen datuak Lanbiden eguneratu beharko dituzte, horiek hartuko baitira kontuan.

3/ Meritu horiek, ondoren azaltzen den moduan egiaztatu beharko dira:

Lan-esperientzia ziurtatzeko ezinbestekoa izango da erakunde pribatuaren kasuan kontratu laboralaren fotokopia aurkeztea eta erakunde publikoan kasuan berriz, erakundeak egindako ziurtagiria aurkeztea. Bi kasuetan, esperientzia baloratu ahal izateko, bete den lanpostua eta kontratuaren edo izendapenaren iraupena modu egokian jaso beharko dira. Horretaz gain, baita, Gizarte Segurantzak emandako bitzita laboral eguneratua aurkeztu beharko da.

Orioko Udalean egindako lanak alegatu egin beharko dira, baina ez egiaztatu. Administrazio honek ofizioz zenbatuko ditu lan horiek. Gainerako administrazio publikoetan lanean egindako denbora



ORIOKUDALA

administrazio haietako bakoitzak hori ziurtatzeko duen ziurtagiri-ereduaren bidez egiaztatu beharko da.

Zenbatzeko orduan, lana edo beharra lanaldi arrunteko jardunbidean egin bada, formula hauxe erabiliko da: laneko urte osotzat 360 egunekoa hartzea eta laneko hil osotzat 30 egunekoa.

Lan-ordutegi partzialeko edo lanordutegi murriztuko dedikazioen kasuetan, zenbatze hori lanean edo beharrean benetan eskaini den dedikazio-denboraren proportzioan egingo da.

Autonomo gisa egindako lanak ziurtatzeko, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ziurtagiria, lizentzi fiskalaren kopia, autonomoen erregimenean egindako kotizazio egiaztagiria eta egindako lan-profesionalen ziurtagiriak (Elkargoak egindako ziurtagiriak) aurkeztu beharko dira. Prestakuntzari dagokionez, ikastaro zein tituluak baloratu ahal izateko, erakunde ofizialek edo haiek homologatutakoek emandakoak izan beharko dira. Ikastaroen kasuan, aurkeztutako ziurtagiriak, bakoitzaren iraupena jaso beharko du. Ordu kopurua jasotzen ez badu, ikastaroa ez da kontuan hartuko.

4/ Merituak toki hauetako batean aurkeztu behar dira:

— Orioko Udaleko erregistroan (Herriko Plaza,1 20.810, Orio). Ordutegia: 8:30-14:30h, astelehenetik ostiralera.

— Apirilaren 1eko 39/2015, Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 16.4. artikulua aipatzen duen edozein tokitan, eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste edozein autonomia erkidegotako erregistroetan, Estatuko Administrazioaren erregistroetan, probintzietako diputazioen, kabildoen eta uharteko kontseiluen erregistroetan.

Eskabidea orria posta bulego batean aurkeztekotan, gutun azal ireki batean eraman behar da: Correoseko enpleguak data eta zigilua jartzeko, aurkezteko epearen barruan. Horrela bakarrik ulertuko da eskabidea posta bulegoan utzi zen egunean izan duela sarrera Orioko udalean Udaleko Erregistroan.

— Aplikagarria den araudiak dioen beste edozein eratan.

Orion 2022 maiatzaren 5ean

Orioko Udaleko Turismo, Merkataritza eta Ostalaritza departamendua